

Auzoz Auzo

Altza

25 urte altzatarrak hezituz

Alex Aisa

apirilean bukatu ziren Altza Herri Ikastetxean, bere 25. urteurrena dela eta antolatu diren ekitaldiak. Azkena apirilaren 26an egin zen eta haurrek antolatutako jaialdia izan zen. Pilotalekuko harmailak leporaino bete ziren haurren emanaldia ikusteko: antzerkia, gimnasia erritmikoa, musika...

1975, urte garrantzitsua

1973ko maiatzean sortu zen ikastetxean neskak eta mutilak banaturik zeuden. Bi urte beranduago arau hau bertan behera geratu zen Bernardo Salgado ikastetxeko zuzendaritza hartu zuenean, eta lehendabiziko aldiz euskara irakasgai izan zen. Euskara zinegotzia den Beatriz Otaegi eta Narciso Villanueva izan ziren lehen irak-

**Beatriz Otaegi
eta Narciso
Villanueva izan
ziren lehen
euskara
irakasleak**



Argazkian, San Jose de Calasanz ikastetxeko garai bateko eta gaur egungo irakasleak.

kasleak. Hiru urte beranduago, euskara hizkuntz ofiziala izendatu zutenean, ikastetxe honetako lehen euskara irakasle ofiziala Jose Aldanondo izan zen.

Auzoaren hazkundera

Altzak izan zuen bilakera eta hazkunderaren ondorioz eraiki zen San Jose de Calasanz ikastetxea. 50. hamarkadan etorkin xehe ugari etorri zen bertara industrian lan egitera. 70. hamarkada arte hazkundera izugarria izan zen eta Udala behartuta egon zen ikastetxe hau zabaltzera.

Ekitaldi ugari

Aurtengo urtean ekintza asko antolatu dira urteurre-



Apirilaren 26an, jaialdi polita antolatu zen ikastetxeko haurrekin. Gaztekoenek kontzertua ere eskaini zuten.

na ospatzeko: Rock kontzertuak, XVI. mendeko musika emanaldiak, Pello Añorga ipuin kontalaria, pailazoak eta abar. Baina ekitaldirik hunkigarriena martxoaren 28an egin zen bazkaltzeko

bildu baitziren ikasle eta irakasle ohiak. Ekitaldi hunkigarri honetan alkateak ere parte hartu zuen.

Bestalde, 25. urteurrena dela eta, liburuxka bat argitaratu da.

Ileapaindegia

A3
Auzoaren Argia

Mons pasealekua 40, INTXAURRONDO • Tfnoa.: (943) 291715

Ugaldetxo
JATETXEA

Banketeak
Agur-afariak
Jaunartzeak

Goizueta bidea • (Hernanitik 9 kilometrotara), Ereñozu
Tfnoa.: (943) 550240

EZKONTZAK • JAUNARTZEAK • BATAIOAK



ETXEBERRI

Jatetxea

LEZOTIK GAINXURIZKETA BIDEA • Tfnoa.: (943) 529889 LEZO